



## ❖ SANTA AGEDA Santa Ageda bezperako errondek girotuko dute gaur Hernani


Santa Ageda bezpera da gaur, eta Hernanin talde bat baino gehiago aterako da kantuan, kalez kale eta etxez etxe errondan. Ordu hauetan jarri dituzte zitak: Ohitura Zaharrak abesbatzak, 18:30etan Milagrosan. Kantuz abesbatzak, 19:30etan Milagrosan. Goiz Eguzki abesbatzak, 17:00etan Sandiusterrin. Eta Ereñotzuko Ur-Mia elkarteak, 16:30etan, elkarteak. ||

## Urtarrilean ere langabezia igo egin da Hernanin; 1.138 langabetu daude

Azken urteetako langabetu gehiena daude Hernanin urtarrileko datuen arabera. Abenduan baino 65 langabetu gehiago daude, %6,06 gehiago, eta proportzioan Gipuzkoako tankeran.

2009KO azken hilabetean langabezia jaitsi egin bazen ere, urte hasieran berriz gora egin du Hernaniko langabetu kopuruak. Guztira 1.138 langabetu daude Hernanin, aspaldiko urteetako gehiena. Langabezia nabarmen ari da igotzen 2008az geroztik, eta igoera nabarmenena 2009an izan du. 2008ko urtarrilean 771 langabe zeuden Hernanin; 2009ko urtarrilean 896; eta 2010eko urtarrilean 1.138.

Azken urteetan, urtarrilean beti igo izan da langabezia Hernaniko datuetan eta datu orokorragoetan. Aurtentzen, 65 langabetu gehiago daude; iazko urtarrilean 57 gehiago; 2008ko urtarrilean 70 gehiago; 2007ko urtarrilean 35 gehiago; eta 2006ko urtarrilean 38 gehiago. Urte hasierako igoera hori beraz,



iazkoa baino altuagoa izan da aurtentzen.

**Joera orokorra**  
Hernaniko datuak joera orokorraren islada dira. Gipuzkoan, adibidez, %6 igo da langabezia abendutik urtarrilerara, eta kopuru historikoa harapatu du. Gipuzkoan 40.914 langabetu daude; kopururik altuena, 1994tik.

Idoia Mendia Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak jakinarazi duenez, gobernua lanean ari da enpresetako langabetu kopurua haunditu ez dadin, joera hori geratzeko, eta enpresak lana sortzen hasi daitezela. «Bagenekien 2010a ez zela urte ona eta erraza izango lanpostu berriak sortzeko, baina espero dugu joera txar hori frenatzen hasiko dela laister». ||

## ❖ LANGILE Kontzentrazioa gaur Urbieta kalean

Langile ikastolak kontzentrazioa egingo du, gaur, 17:00etan Urbieta kalean, Jaurlaritzak hartu berri duen erabakia salatzeko; DBHko ikastetxeen fusioa, alegia. ||

## ❖ ZUMITZA Zikloturisten lizentziak iritsi dira

Zumitza txirindulari taldeak jakinarazi du, kide guztiak eskuragarri dituztela 2010 denboraldiko lizentziak, Zumitza tabernan bertan. ||

## ❖ KALDEREROAK Entsaio nagusia gaur Elur Txorin

Kaldereroak izango dira larunbatean Hernaniko kaleetan, eta entsaioak egiten ari dira asteazkenean. Gaur dute entsaio nagusia, txaranga eta guzti, 20:00etan Elur Txorin. ||

## ❖ ZINEKLUBA 'La cuestion humana' gaur

Nikolas Klotz zuzendariaren *La cuestion humana* pelikula emango dute gaur, Biterin, Zineklubaren barruan. 21:30etan. ||

## ❖ HARRERA

### Atzo iritsi ziren Hernanira Arrieta, Oñate eta Telleria

Atzo goizaldeko 02:00ak inguruan iritsi ziren Hernanira Aitzol Arrieta, Ekhi Oñate eta Ekaitz Telleria hernaniarrak. Herenegun arratsaldean atera ziren hiru gazteak Alcalá eta Soto del Real espetxeetatik, baldintzapeko askatasunean, eta atzo, herritar askok egin zieten harrera Hernanin. Hiru gazteek euren animoak bidali zizkioten Egoitz Balerdi hernaniarrari. Balerdi baldintzapean askatzekoa zuten, baita ere, baina atzo adierazi zutenenez, tramite arazoak direla eta, aurrerago askatuko dute. ||



## GURE ARTEAN EUSKARAZ 2010

9 lagunek euskara praktikatzeko zure laguntza behar dute.



**dobEra**  
EUSKARA ELKARTEA

6 euskal hiztunen bila gabiltza  
asteazkenean, ordubetez euskaraz...  
pasatzeko, kafetxo bat hartzeko edota,  
parranda egiteko

Izena emateko deitu ezazu 943 33 27 99 telefonora edo pasa zaitez Larramendi 11n dugun bulegotik.

**VINOS RIOJA**

**BETIKO GIROA !!**

KALE NAGUSIA 61,  
20120 HERNANI. TEL: 943 55 64 92

**BASERRIKO SAGARDOA**

**GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA**

Sagardo naturala  
% 100 bertako sagarra

✓ Ostegunetik igandera irekita  
✓ Asteburuan eguerdian ere zabalik

☎ 943 55 32 72 - 620 78 35 29

Ereñotzu auzoa - Hernani

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103 ● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauzez**: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

**EGURALDIA** ● **GAUR** Lainotuago izango dira zeruak gaur. Goiza lasai antza joango da eta arratsaldeko lehenengo orduak ere bai. Arratsaldeko azken orduetan mendebal zakar joko du, eta euri jasa ederrak botako ditu. ● **BIHAR** Mendebala bizi ibiliko da gaur egun guztian, eta giroa freskatu egingo du. Eguraldi nahasi xamarra izango dugu; euri zaparradak egingo ditu noizbehinka. (euskaime)

## ❖ AAM - HERNANIKO PRESO POLITIKOEN SENIDEAK

# Itxialdia, ostiraletik larunbatera

Ostiralean 20:30etan sartu, eta larunbatean 19:00etan aterako dira. Hernaniko senideek dei egin diete herritarrei itxialdian parte hartzera.

HERNANIKO preso politiko-en senideek itxialdia egingo dute bihartik larunbatera, Hernaniko udaletxean. Adierazi dutenez, euskal presoak burrukaldi batean daude, eta beraien burruka kaleratzeko asmoarekin egingo dute itxialdia. «Presoak egiten ari diren salaketa gizarteratu nahi dugu, kaleratu, Herna-

niko herritarrei jakinarazi, zer den salatzen ari direna eta zein egoeretan dauden».

### Parte hartzeko deia

Ostiralean 20:30etan sartuko dira udaletxean, eta larunbat arratsaldean aterako dira, 19:00etan. Hernaniko senideek hartu dute iniziatiba itxialdia egiteko, baina herritar

guztiak animatu nahi dituzte, bertan parte hartzera.

### Kontzentrazioa ostiralean, manifestazioa larunbatean

Bihar ostirala, kontzentrazioa egingo dute, 20:00etan Zinkoenean. Larunbatean, manifestazioa izango da, 19:00etan Gudarien plazatik abiatuta. ||

## 👁️ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Amonarraiz jaunari:

Zuk bidalitako eskutitzean diotzu hondakinen poltsentzako euskarriak fatxadetan ipintzeko bizilagunei baimena eskatu behar zaiela, izan ere, hauek pribatuak dira eta bizilagunak dira euren jabeak. Horretan ados.

Zergatik orduan, Audientzia Nazionalaren mehatxupean, fatxada berberak publiko bihurtzen dira senide edo lagun presoaren argazkia ezin jarri ahal izateko?

Ez al dira pribatuak partikular zein pribatuei espropiatzen zaizkien milaka hektareak gure ingurunea txikituko duen trena

egiteko?

Bi orduz boltsak zintzilikatuta ikusteak arduratzen zaitu, baina ez al zaitu arduratzen zure alderdiak (PNV), beste alderdi batzuekin batera, inposatu nahi duen eta soilik proiektuko fotokopietan Atez-Ateko guztia baino garestiagoa den trenak Euskal Herrian eta zehazki Hernanin utziko duen argazki finkoak?

Noiz egin edo bultzatu du zure alderdiak (PNV) AHTari buruzko erreferendumik?

Egin al zuen zure alderdiak (PNV) erreferendumik Zornotzan, herriaren iritzia ezagutzeko?

Lemoiz eraikitze orduan egin zuen halakorik?

Noiz egin du zure alderdiak (PNV) kontsulta edo erreferenduma gurasoen gehiengoak baztertzen duten Hernaniko DBHko ikasleen bateratzea ez inposatzeko?

Azken finean, zure alderdiak (PNV) inoiz kontsultatu al du herria ezertarako?

Hernanin AHTaren ondorioz geratuko den argazkia ikusiko al duzu leih otik, edo poltsei bakarrik begiratuko diezu?

Hori guztia Hernanin bizi bazara, noski.

Agur, eta ondo segi.

Jose Ignacio Arruti

## ❖ ERAKUSKETA

### Hernaniko eta Goierriko 10 pintore eta eskultore ezagunen lanak ikusgai

Itzulera erakusketa ikusgai dago Biterin otsailaren 12ra arte. Asteleheneetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara. Bertan bildu dira Hernaniko eta Goierriko 10 pintore eta eskultore ezagunen lanak. Hernaniko artistak hiru dira: Gorette Izuzkiza, Jose Luis Elexpe Pelex eta Peio Goello. Gainerakoak honakoak dira: Leire Markinez, Maider Urretabizkaia, Iker Dorronsoro, Patxi Morales, Jokin Telleria, Javi Soto eta Jesus Lopez Zulueta. ||

### Atez ateko zalantzak argitzen

Zer egiten da errauste-planta errentagarria izateko nahikoa zabor ez dagoenean?

Zaborra beste herrialdeetatik inportatzen da. Horregatik, praktikan, errauste-planta dagoen tokietan ez da birziklatzea bultzatzen.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net) Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

- Neska arduratsua eta erreferentziaduna** umeak zainduko litzuzke arratsaldetan. Deitu: 646 940 487
- Bigarren eskuko bazarra**, denetarik eta zentimo gutxigatik hasita, baita zilarra ere fabrikako prezioetan: **otsailaren 3tik aurrera (10:00etatik 13:00etara)**. Egun gutxi batzuetan bakarrik, **Karmelo Labaka 1** zenbakian.
- Pisu baten bila nabil alokairuan** (abala), 2 logela. Deitu: 608 671 844.
- Pisua salgai Karabelen**, 60m2, 2 logela, sala, sukalde eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.
- Pianoa salgai**. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.
- ETXEO KONPONKETAK egiten dira**; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua**. Fotodepilazio berria, **hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan**, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatua, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. **Atzeta 2, behea**. Tel. 943 55 32 78.
- Argia zentroa**. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropaxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2)**. 943 55 76 76
- Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

# IES HERNANI BHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## 12-18

### Etorkizuneko Bideak eraikiz

INFORMAZIO GEHIAGO HERNANIKO ERREFERENTZIZKO IKASTETXEETAN

Telefonoak:

☎ 943 551188

☎ 943 551958

☎ 943 330080

☎ 943 552633



MATRIKULA EPEA: OTSAILAK 1-12

### BATXILERGOAK



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA



### HEZIKETA ZIKLOAK



MEKANIZAZIOA (ERDI MAILA)  
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK (ERDI MAILA)  
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA (GOI MAILA)  
INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK (GOI MAILA)